

ataria

2023-06-09 • 1.802. zenbakia
107.6 fm • Ataria.eus

Lizartzako eskola, txikitasunean handi





AURKIBIDEA

Iritzia Oihana Iguaran **3**

Elkarrizketa Irati Atxa,
emakumeak automobilismoan **4-7**

Errezeta Aintzane Artola **9**

Asteko Gaia Eskola Txikia,
Lizartzako altxorra **10-17**

Iritzia Maddi Amiano **19**

PlazanBazan Denbora-pasak **24-25**

Elkarrizketa Joseba Tapia
Harituzen hamarkada
ospatzera **26-29**



Azaleko irudia
Leyre Carrasco

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana euskaraz

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



**OIHANA IGUARAN
BARANDIARAN**
IKERLARIA ETA
BERTSOLARIA

Bizipoztu

Tripa puztuari begira gelditzen ziztaizkion aldiro kanean, eta ia aldiro heltzen ziren galdera berera: «Zer daukazu?». Eta berak, bere buruan bitartasunez haragoko diskurtsoa errepasatu ostean, «haur bat» erantzuteko gogoia irentsi behar izaten zuen. Orduan, «zer izatea nahi duzu?» galdetuko zioten bueltan. Eta berak, «osasuntsua» erantzungo zuen automatikoki, baina barrurantz pentsatuko zuen erantzun zuzena ez ote zen «zoriontsu»; gaitz bat gora-behera, bizipozik ukatuko ez bazion moldatuko baitziren.

Urdina edo arrosa jakin nahian garatzen ziren elkarriketa antzu horietan guztietan, itxiera bera heltzen zen beti: «Etor dadila ondo, behintzat». Eta orduan ere, triparen jabeak zalantza egingo zuen bere baitara, zer ote den «ondo» eta nork erabakitzen ote duen zer den «ondo etortzea». Izan ere, denok ez daukagu izateko, sortzeko, etortzeko modu bera, eta hori hala izanik, «ondo» horren baitan ulertzen dena mugatu eta uniforme xamarra ez ote den pentsa lezake batek.

Amniozentesia eta zenbait froga eskura ditugun garaian, zenbait osasun arazo saihestea jartzen da jomugan, beste zenbait jaio ostean aurkitu beste bideirik ez den artean. Eta arazoren batekin «etorri» den haur horrek, gerora arazo bat etorri zaion edonork bezala, ez ote lukeen datorren moduan ondo hartuko duen jendarte eta mundu bat merezi. Hori ere pentsatuko luke batek. «Etor dadila ondo» horren atzetik, «har dezagula ondo, datorren bezala» erantsiko luke. Baina ez daki prest dagoen bizitzaren zozketa horretako txartelak dituela onartzeko.

Zorionez, bizipozerako bidea koskaz betetzen duten gaitz eta ezbeharren bueltan, badira jende sare ederrak, elkartetan antolatuak zein euren inguruan eragile direnak. Denontzat behar lukeen mundu hori heltzeko zailtasunak dituztenei eskura jartzea delako gure egitekoa. Horretarako lehen pausoa izan liteke mundua denontzat ez dela ohartzea, askoren egunerokoan muga diren errealitate desberdinez jabetzea, horien inguruan ikastea, horiekiko sentikortasunez eta elkartasunez nola jokatu ikastea. Zer behar dituzten ezagutzea izan daiteke abiapuntu, eta eurentzat irisgarria izango den bizipozerako bidea eraikitzea hurrengo pausua.

«Zorionez, bizipozerako bidea koskaz betetzen duten gaitz eta ezbeharren bueltan, badira jende sare ederrak, elkartetan antolatuak zein euren inguruan eragile direnak»

Bizipoza elkartearen lan eskerga da denontzat mundu bat irudikatzeko modu bat, eta zorionekoak gu, datorren astean *Bizipoztu dantzan* ikuskizuna eta Bizipoza jaia izango ditugulako Aiztondo bailaran, Villabonan. Datozen bezala datozela ere, haurrek euren bidea egiteko aukera izan dezaten, ondo hartu ditzagun. Eta osasun kontuak gorabehera, edozein gurasok zein senidek erantzun ahal izateko «zoriontsu», zalantzarik gabe. Ekainaren 17an eta 18an, Bizipoztu gaitzen!



IRATI ATXA

PILOTU
LAGUNTZAILEA ETA
EMAKUMEAK
AUTOMOBILISMOAN
TALDEKO KIDEA

«Emakumeok hemen ere bagaude, eta gure kirola badela erakutsi nahi dugu»

Pilotu laguntzailea eta Emakumeak automobilismoan taldeko kidea da Irati Atxa. Motor lasterketetan emakumeen parte hartzeari buruzko informazioa biltzen dute, eta ikusgarritasuna dute xede.

Aitor Arroyo Askarai

Lasterketak ikustera joateko afizioa aurretik bazuen arren, joan den denboraldian hasi zen lehiaketetan parte hartzen Irati Atxa (Zegama, 1995). Sortzez goierritarra, bi urte daramatza Lizartzan bizitzen, eta herrian, gutxienez, bi omen dira motor zaleak. Pilotu laguntzailea da Atxa, eta aurreko urte amaieran parte hartu zuen Emakumeak automobilismoan taldea sor-

tzen. Motorraren munduan dabiltzan emakumeei ikusgarritasuna ematea dute helburu, eta sare sozialetan taldearen izen bera duen kontua sortu dute horretarako. Xehe-xehe azaldu du zein diren proiektuaren erronkak, nondik norakoak eta zer egin duten orain arte.

Nola sortu zen taldea?

Joan den urteko abenduan, federazioaren bitartez mezu elektroniko bat iritsi zitzaigun federatuta geunden emakume guztioi. Bertan esaten zuten berdintasunaren inguruko zerbait egin nahi zutela, eta ea proiekturik edo ba ote genuen. Elkartu ginen, baina, gero ez zen aurrera atera federazioko ezer. Hala ere, ikusi genuen gogo handia zegoela emakume talde bat sortzeko, eta beharra ere identifikatu genuen. Beraz, geroago, modu independentean guk sortu dugu taldetxoa.

Eta zein da ekimenaren helburu nagusia?

Lehenengo helburua da ikusgarritasuna ematea emakumei motorraren munduan; ez bakarrik auto lasterketetan, baita motorrean edo bestelakoetan ere. Normalean, rally bat aipatzen dugunean mutilak etortzen zaizkigu burura; edo pilotu gizonetakoak. Ez zaigu Laia Sanz bururatuko; lehenago aterako dira Fernando Alonso edo beste batzuk. Beraz, helburua da erakustea emakumeok hemen ere bagaudela, eta gure kirola ere badela. Azpi helburu bezala, berriz, emakumea ahalduntzea era badaukagu, noski. Hau ez dugu lanketa isolatu baten moduan ulertzen, orokortasunari ekarpena egiteko modu bezala baizik.

Zein da eguneroko jarduna? Zer egiten duzue helburua lortzeko?

Hilabeteen behin elkartzen saiatzen gara. Ez da erraza izaten: beti baldintzatzen du egutegiak, astebururo izaten baita lasterketaren bat. Orain arte gehienetan Azkoitian elkartu gara; eta orain arteko bilerak, hain justu, izan dira zehazteko zertarako biltzen garen, eta taldea oso berria denez, adosteko nondik nora joan nahi dugun, zertara goazen eta helburuak nola lortu ditzakegun. Datu bilketa batzuekin hasi gara, eta sare sozialetan abiatu dugu lanketa; gaur egun, zorionez edo zoritxarrez hori baita mundu guztiak ikusten duena. Beraz, ikusgarritasuna espazio horietan lantzetik hasi gara, eta ekimena pixka bat finantzatzeko kamisetak eta jertseak egiteko asmoa dugu.

«Gogo handia zegoen emakume talde bat sortzeko, eta beharra ere identifikatu genuen»



Orain arte, gehienbat, Euskal Autonomia Erkidegoako lasterketetako datuak bildu ditugu: lehen ediziotik azken edizio arte zenbat emakumek parte hartu duten zenbatu eta grafikoak egiten ditugu. Gu ere harritu gara, lehen-lehen edizioetan ere parte hartu baitzuten zenbat emakumek; ez ziren asko, bizpahiru izango ziren, baina hor zeuden. Gaur egunera, berriz, bilakaera positiboa da; hau da, gero eta emakume gehiagok hartzen dute parte. Garrantzitsua da hori ikusaraztea.

Zein datu argitaratzen dituzue?

Emakume kopuruaren batz bestekoa ateratzen dugu. Lasterketaren aurretik argitaratzen saiatzen gara. Hurrengo lasterketa Goilurak izenekoa izango da, ekainaren 17an. Aurretik, datu bilketa bat egin dugu lasterketa horren lehen ediziotik gaur egunera: zenbat emakume eta gizon atera izan diren, zenbat aterako diren aurren, eta gero bitxikeriaren bat edo jartzen saiatzen gara. Eskualdeko emakume piloturen bat baldin badago hori ere aipatzen dugu, lehen esan bezala, ikusgarritasuna emateko helburuarekin.

Egia da azken unera arte ez dugula jakiten gaur egungo edizioeko parte hartzaileen inguruko informaziorik, baina, moldatzen gara eta lortzen ditugu datuak [Barrez].

Ez da, beraz, emaitzen berri izateko toki bat.

Printzipioz ez, baina, argitaratu izan dugu zerbait, norbaitek lasterketaren bat irabazten duenean, edo EAEz kanpo lasterketaren batean gure taldeko norbait ateratzen denean.

Nola iritsi zinen automobilismoaren mundura?

Mundu honetan oso-oso berria

naiz, aurreko denboraldian hasi nintzen lasterketetan parte hartzen. Egia da aurretik ere banuela afizioa karreretara joateko eta ikusteko, baina, orain arte ez dut praktikatzeko zortetik izan.

Zentzu horretan, iruditzen zait garrantzitsua dela gu hemen gaudela erakustea, neurri batean, erreferente izateko. Niri gertatu izan zait Zegamara joatea eta baten batek esatea: «Jo Irati, rallyetan zabilzala jakin dut; ze ondo!». Horrek kristoren poza ematen dit. Jendeak ikustea hor gaudela, eta ondoren etorriko direnei bultzada txiki hori ematea.

Nortzukosatzen duzue taldea?

Talde oso-osoan berrogei bat neska izango gara. Gero talde-eragilea edo motorra ere badaukagu, eta hori lauk osatzen dute: Alazne Apalantzak, Ane Lazkanok, Oihane Urangak eta Nagore Hidak. Horiek zuzentzen dute kontua, baina, denbora batez izango da, zuzendaritza txandakakoa izatea baita asmoa.

Talde eragileak egiten ditu proposamenak, eta gero bilera zabal batean hartzen ditugu erabakiak; bertan parte hartzen dugunok federatuak gara. Gero, ordea, talde zabalago bat ere badaukagu, eta hori erabat irekia da, informazioa nahi duen edo interesa duen edonork har dezake parte.

Taldearen barruan zein ardura duzu zuk?

Momentuz egiteko zehatzik ez. Talde zabalean parte hartzen dut, eta bertan eztabaidatzeko eta bozka-

tzeko aukera daukat. Talde zabalera proposamenak eramaten ditu talde eragileak, eta horrela hartzen ditugu erabakiak.

Egia da tokatuko zaidala, ardura txandakakoa delako; baina, momentuz lau horiek dabilta, eta lan oso ona egiten ari dira.

Eskualde honetan ba al dago afiziorik automobilismorako?

Neronek ez dut jende asko ezagutzen, baina, badakit Lizartzan, adibidez, bi bagarela. Horrelako herri txiki batean bi baldin bagara, estatistiken arabera, herri handiagoetan gehiago egongo dira [Barrez]. Azpeitia, Azkoitia edo inguru horrekin alderatzen badugu, agian, ez dago hainbesteko afiziorik, baina, hemen ere badago.

Aldea dago pilotu eta kopilotu kopuruaren aldean. Zer dela eta da hori?

Taldean ere aztertu dugun gai bat da. Baina, hori ez zaigu iruditzen genero auzi bat denik, gehiago da baliabide ekonomiko kontua. Nik ere auto bat eduki ahalko banu, prest jarri eta dena, gidari izango nintzateke; eta ni bezala asko egongo dira. Baina, esan bezala, gehiago da baliabide ekonomiko kontua.

Nolakoa da emakumeek automobilismoan bizi duten egoera?

Egoera nahiko ona da. Geroztik eta emakume gehiago daude, indartsu sentitzen gara eta talde sentipen

ATARIAN jarrita Goferri
eta Urola Kostako
Hitza egunkaritan dion

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 130€ • **Atarikideentzat:** 65€
Handia: 180€ • **Atarikideentzat:** 90€
Eskertza: 80€ • **Atarikideentzat:** 40€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.



Irati Atxa eta Iban Leanizbarrutia kotxe barruan. I.L.

handia dago. Mutilekin batera gaude, ez dago banaketarik gizon eta emakumeen artean, batera goaz denok; elkarri laguntzeko prest. Haiek bultzatzen gaituzte, eta baita guk haiek ere. Orduan, ez dut uste azpian gaudenik; nire inguruan behintzat. Egia da komunikabideetan, orokorrean, ez dela asko agertzen kirol hau; eta agertzen denean albiste txarren bat emateko izaten da, heriotzaren bat edo istripuren bat gertatzen denean...

Automobilismoaren barruan baino gehiago da kanpotik nola ikusten gaituzten, eta zenbat epai eta aurreiritzi dauden. Askok da, baita ere, ez daudelako emakume erreferente asko arlo honetan. Baina, esandakoa, hori kanpotik ikusitakoa da; automobilismoaren munduaren barruan, nahiz eta kopuruz gutxiago izan, nahiko pareko gaudela esango nuke.

Noizbait sentitu al duzu gutxietsi zaituztela?

Entzun behar izan dut ez dela nire kirola [Barrez]. Bai gurasoen partetik, bai orokorrean jendearen partetik. Baita lasterketetan parte hartu gabe ere, ikustera joaten nintzenean esaten zidaten: «Zertara zoaz zu kotxeak ikustera? Kotxeak ez dira zure kirola». Hori jaso dut, baina, gazteagotan izan zen.

Nire anaia jarriko dut adibidetzat hori erakusteko: askotan esan izan dit harekin joateko, tokia badutela-eta; baina, beste askotan ere esan izan dit ea zertara

joan behar dudan. Xelebrea da, azkenean, bera baita animatzen nauena. Ez da kirol oso fisiko bat: auto batean goaz pilotua eta kopilotua, eta berdin dio zein generotakoa zaren.

Lasterketetan lehiatzeko ba al dago genero irizpiderik?

Berdin dio. Nire pilotua gizonekoa da; beste kotxe batean gidaria emakumea eta kopilotua gizona izango dira; Maiderren pilotu laguntzailea emakumea izaten da. Ama-alabak ikusi izan ditut lasterketetan, eta baita aita-semeak ere. Nire kasuan autoa pilotuarena da, eta horri dagozkion gastu gehienak berak ordaintzen ditu; berak proposatu zidan kopilotu izatea, eta gero taldea sortu dugu. Komunikazioa oso garrantzitsua da, eta baita konfiantza ere. Gu oso ondo moldatzen gara, eta lehiaketetan ere ez dago genero bereizketarik.

Momentuz Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duzue. Ba al duzue zabaltzeko asmorik?


Bai, bai. EAEn federatutako neskak gaude momentuz, baina, Nafarroako hainbat emakumek ere gure taldekide izan nahi dute, eta guri zuzenena iruditzen zaigu haiek parte hartzea. Gero, pilotu asko daude EAEn ateratzen direnak, eta baita Kantabrian ere. Orduan, polita izango litzateke hemen ez geratzea, baizik eta kanpora joatea... Espainian ere badago jendea lasterketetan ibiltzen dena, beraz, pixkanaka joango gara eta ea zer ateratzen den.

Aurrera begira beste proiekturik baduzue esku artean?

Badauzkagu ideia pare bat, baina, oraindik asko zehaztu gabe. Azkenean, edozer egiteko dirua behar da... Pixkanaka-pixkanaka, baina, proiektutxo edo ekintzaren bat badaukagu buruan; batez ere ahalduntzeari begira, baina, ezin dut ezer gehiago aurreratu.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.



Ez baduzu hanka
sartu nahi,
sartu zure iragarkia
IragarkiLaburrak.eus
atarian

Haragiz betetako piper beteak



AINTZANE ARTOLA



Lehenik eta behin, haragia preparatzen hasiko gara. Zangarra, txerri saihetsa eta oilasko izterra egosiko dugu. Ondoren, egositako haragi guzti hori eskuz txiki-txiki egingo dugu. Hezur eta azal zati guztiak kenduko ditugu.

Jarraian, piper potea ireki eta zartaginean olio dezenterekin botako ditugu piperrak, goxo-goxo eginez, su-eztitzen. Zartaginean, piper guztiak sakabanatuta jarriko ditugu, olio estalirik. Piperrei buelta emateko orduan, kontuz ibili behar gara, ziztadarik gabe, piperrak apurtu gabe. Pixkanaka, beraz, buelta emango diegu. Kanpokoak karamelizatu puntu batean ikusten dugunean, 20 minuturen buruan gutxi gorabehera, sutik aterako ditugu. Eta, platera batean lehortzen eta hozten utziko ditugu, azken batean, eskuz manipulatu ditugu eta erre ez gaitezen garrantzitsua da tenperaturekin adi egotea.

Piperrak karamelizatzen diren bitartean, betegarria preparatzen joan gaitezke. Orduan, beste zartagin batean, tipula txikituta botako dugu eta su-eztitzen jarriko ditugu. Gatz puntu bat botako diegu, ura askatzeko. Behin tipula eginda dagoenean, haragia gehituko diegu. Eta jarraian, haragi honekin bexamel moduko bat egingo dugu. Irin koilarakada bat botako diogu eta

sutan utziko dugu. Ondoren, esne basokada bat gehituko diogu. Uneoro, koilara baten laguntzaz, bueltak ematen egongo gara, loditzen den arte.

Ondoren, egin beharrekoa eskulana izango da. Piperrak hartu eta kontu handiz, oso delikatuak baitira, prestatutako haragi oreka piper bakoitzaren barruan sartzen hasiko gara, koilara baten laguntzaz.

Piperren bat puskatzen bazaigu ez du inporta. Puskatutako piperrekin eta piper hondarrekin saltsa bat prestatuko baitugu. Piper horiek bol batean bota, gainera tomate kontzentratu koilarakada bat gehituko diegu eta baita gatz puntu bat ere. Irabiagailu baten laguntzarekin krema bat osatuko dugu orduan.

Zerbitzatzeko garaian, pare bat piper preparatuko ditugu pertsona bakoitzarentzat eta gainera prestatu dugun saltsa horren koilarakada bat botako diegu.

OSAGAIK

- Zangar zati bat.
- Txerri saihets zati bat.
- Oilasko izter bat.
- Ura.
- Gatza.
- Pikillo piper pote bat.
- Oliba olio.
- Esne basokada bat.
- Irina koilarakada bat.
- Tomate kontzentratu koilarakada bat.
- Tipula.

Eskola txiki, familia handi

Lizartzako Eskola Txikia herriko altxorra da. 1966. urteaz geroztik, eskolak bizia ematen dio herriari. Eskolak eta herriak elkarren beharra dutela gogoratzeko, urtero ekaineko bigarren igandean festa giroan murgiltzen dira Eskola Txikiak, eta aurten, Lizartzan elkartuko dira.

Leyre Carrasco Lizartza

Eskola Txikiak geroz eta indar handiagoa ari dira hartzen, eskola osatzen duen sarea zabalduz. Une honetan, 27 eskola txiki daude Gipuzkoan, 5 Araban, eta 20 Bizkaian. Horietako bat da Lizartzako Herri Eskola. Gotzone Bengoetxea Lizartzako Herri Eskolako zuzendariak gogoan du garai batean 20 ikasle soilik osatzen zutela Lizartzako Herri Eskola. Une honetan, ordea, 66 ikasle daude, 42 familia guztira; Haur Hezkuntzan 20 ikasle, eta Lehen Hezkuntzan, berriz, 46 ikasle.

Lizartzako ikasleak ez ezik, Orexako eta Gazteluko ikasleak ere Lizartzako Herri Eskolara joaten dira ikastera. Marta Lakunza Lizartzako Haur Hezkuntzako irakasleak aitortu bezala, «lanean hasi nintzenean 24 ikasle etortzen ziren denera Orexatik». Orain jaio-

tza kopuruak behera egin du, eta inguruko herrietatik etorritako ikasle kopurua ere gutxitu egin da. Hala ere, oraindik orexar eta gazteluar gutxi batzuk gertzen dira Lizartzako Herri Eskolan, eta honen parte izan arren, euren sustraiak nongoak diren uneoro argi uzten dutela kontatu du Lakunzak: «Ipuinak bukatzen ditugunean beti esaldi berarekin amaitzen dugu: 'Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila...' eta hor erretorikan hasten dira: 'Lizartzako plazan!', 'Orexako plazan!', 'Gazteluko plazan!', eta azkenean denek 'Herriko plazan!' esaten dute».

Irakasleei dagokionez, une honetan, eskolan hamalau irakasle daude, eta konstruktibismoan zentratutako metodologia erabili ohi dutela azaldu du Lakun-



Gotzone Bengoetxea zuzendaria, Marta Lakunza Haur Hezkuntzako irakaslea, Sebas Goya Lehen Hezkuntzako irakaslea eta Joxean Arrue gurasoa. **L.C.**

zak: «Fokua haurrengan jarri eta haien beharretara egokitzen gara; ikusten dituzten gauzetatik hasita eta euren esperientziaz abiatuta. Hori ez da gurea, oso hedatuta dagoen metodologia bat da».

Garrantzi berezia hartzen dute irakasle berriei zuzendutako formazioak Eskola Txikietan. Lizartzan, berriz, irakasle berri bat lanean hasten denean dinamika azaldu eta hemengo martxa erakusteko denbora «dezente» eskaintzen zaiola aitortu du Lakunzak. Horretarako, duela hiru bat ikasturte harrera protokolo «potente» bat abiatu zutela gehitu du Sebas Goya Lehen Hezkuntzako irakasleak: «Familiei eta ikasleei bideratutako harrera protokoloa eratu genuen, baina baita irakasleei zuzendutakoa ere. Izan ere, irakasle berriek, batez ere, Eskola Txikiak

ezagutzen ez dituenarentzat, dena berria izaten da, eta hori zenbait irakasleei ezezaguna edo arrotza egiten zaie eta beldurra eragiten die. Beraz, protokolo horretan nahiko garatuta dago edozein modutan irakasleei denbora eskaintzea dela biderik egokiena».

Irakasteaz gain, ikasteko prest ere badaudela azpimarratu du Bengoetxeak. «Beti irekita egoten gara etortzen diren irakasle berriek eskaintzen digutena edo egiten dizkiguten ekarpen berriak hartzeko. Gure oinarria bai, baina gu ere ikasteko prest gaude». Izan ere, Goyaren esanetan, «Eskola Txikiaren ezaugarrietako bat ere bada txikitasun horretan gertutasuna izatea, giroa gozatu egiten da, eta irakasleen arteko hartu-emana ere ezinbestekoa da».

Aniztasuna, inklusiorako bidea

Eskola Txikietan aniztasuna erabat aberasgarria da, eta hori da Eskola Txikiko talde proiektuaren oinarri nagusietako bat. Adin ezberdineko ikasleak elkartzea interakzioa aberasten eta inklusiorako bidea zabaltzen du. Goyak adierazi bezala, «hori eskolan oso barneratuta dugu; izan ere, adin ezberdineko ikasleek beraien artean elkar ezagutzen dute, eta batzuetan lankidetzan edo jolasean aritzen dira. Oso ohituta daude horretara, eta beti bata besteari laguntzen egoten dira. Horrek eragin izugarria du herritarren arteko ezagutza islatu egiten delako eskolan ere».

Hiri edo herri handietan interakzioa erabat galduta dagoela aitortu du Goyak, baina herri txikietan oraindik mantentzen da. «Kanpoan dauden ikasle ohiak ere askotan izaten ditugu eskolan, bisitan etortzeaz gain, irakurketa saioak ere eskaintzen baitituzte. Ikasleentzako gatzetxo horiek erreferentziak diren pertsonak dira, beraz, hori garrantzitsua da».

Eleaniztasun proiektuaren barruan irakurketa plan bat dute Lizartzako Herri Eskolan, eta horren barruan ekintza mordo bat diseinatu dute. Urtean zehar ikasleen familiako kideak etortzen dira jarduera desberdinak egitera; eta aurten gizonezkoen presentzia handia egon dela azpimarratu du Goyak. Horietako ekintzetako bat ikasle ohien irakurketa saioak dira. «Urte guztian motibazio eta estimulu bila ibiltzen gara, baina hori baino estimulu eta motibazio handiagorik ez dago, gure ikasleen irakurketa bultzatzeko eta sustatzeko», gehitu du.

Horrez gain, bestelako proiektuak ere izaten dituzte martxan; besteak beste, bizikidetzeta edo ele-aniztasun proiektua edota digitalizazio plana. Urte hauetan, eskola handiko proiektuak ere uztartzen eta lantzen saiatu direla kontatu du Bengoetxeak: «Eskola txikia izateak ez du esan nahi eskola han-

«Eskola Txikien ezaugarrietako bat txikitasunean gertutasuna izatea da»

SEBAS GOYA

diek egiten duten proiektu horien barnean ez gaudenik. Begirada eskola handiagoetan daukagu, hor dagoena ikusi behar dugulako, baina gero gure eskolara ego-kitu behar dugu, txikitasun hone-tara moldatu behar dugu».

Baso eskola

Natura ikasgelara ekartzetik edota ikasgela naturara zabaltzetik haratago, basoa bera bihurtzen da ikasgela, bere errutina, arau eta edukiekin. Horrela, hotza, beroa, euria edo eguzkia egin Lizartzako Haur Hezikuntzako ikasleak baso eskolara joaten dira, astero. Horretarako, eguraldia dena dela, jantzi bereziak eramaten dituzte. Eskolatik Arrolara iritsi arteko ibilbidea egiten dute herrian zehar. Bi eta bost urte bitarteko ikasleak dira, eta bidetik topatzen dituzten naturaren elementu ezberdinak eta animaliak identifikatzen dituzte, lorpen handiz.

Behin, Arrolara iritsita, korroan eseri eta asanblada moduko bat egiten dute irakasleekin. Bertan, inguruan entzuten dituzten soinuak identifikatzeaz gain, abestu eta ondoren egingo dituzten jolasetarako baldintzak ezartzen dituzte. Hala ere, denek argi dute zer egin dezaketen eta zer ez; zer dagoen ondo, eta zer dagoen oker.

Asanblada bukatuta, ziztu bizian joaten dira jolas-tera. Batzuk inongo beldurrik gabe erre kara sartzen dira, besteek nahiago dute lokatzetan jolastu, eta gutxi batzuk belarretan geratzen dira. Hala ere, denek

berdin bukatzen dute: goitik behera bustita edo zikinduta, eta hori gozamenaren seinale da. Tar-tean, hamaiketako jateko parada izaten dute, eta indarrak hartuta, jolasean jarraitzen dute.

Ondo pasatzeko tarteak izateaz gain, baso eskola ikasteko modua ere dute. Izan ere, ikasteko modurik praktikoen halako jardueren

«Eskola txikia izateak ez du esan nahi eskola handien proiektuen barnean ez gaudenik»

GOTZONE BONGOETXEA



bitartez lortzen dela diote irakasleek. Jolasean dau-
den bitartean, inguruan aurkitzen dituzten landareak
eta animaliak ikuskatzen dituzte, betiere natura eta
haien arteko harremana errespetatuz.

Euskaraz hazi

Euskaraz bizi eta euskaraz hazi nahi duten eskolak
dira Eskola Txikiak. Bertako hizkuntzan bizitzeko
hautua egiten dute eskolako komunitatea osatzen
dutenek, eta euskaraz ikasi eta jarduteko bidean, pa-
per garrantzitsua jokatzen dute Eskola Txikiek.

«Lizartza herri euskalduna da eta eskola euskaldu-
na du. Horrek horrela izaten jarraitu behar du», azpi-
marratu du Goyak. Hala ere, egoera hori poliki-poliki
aldatzen eta zailtzen ari dela-eta, eskola osatzen du-
tenei kezka sortzen die. Egoera horretan, bi arrazoi
nagusi nabarmendu dituzte. Alde batetik, kalitatea-
ren jaitsiera: «Gure ikasleek euskara oso ona etxetik
dakarte. Hori ez da eskolaren meritua, familien meri-
tua baizik, eta hori sekulako altxorra da. Baina kalita-
tea nabarmen jaisten ari da, eta horrek kezkatu egi-
ten gaitu. Gure balore oso garrantzitsua da, zaindu
beharrekoa», esan du Goyak.

Eta bestetik, hizkuntzaren erabilera dute beste
kezka nagusia, euskara ez den beste hizkuntza ba-
tzuk gehiago entzuten hasi baitira Lizartzako kalee-
tan. Lizartzako Herri Eskolari dagokionez, urte luzez
«oasi» moduko bat izan dela esan du Lakunzak, bai-
na egun, ordea, gainontzeko eskoletan bezala, erre-
alitatea aldatzen ari da. Izan ere, Haur Hezkuntzako
iazko kurtsoan hamar ikasle azpiko taldea egokitu zi-
tzaion, non bost hizkuntza ezberdin entzun zitezke-
en: arabiarra, bereberra, portugesa, gaztelera eta
euskara.

Horrekin lotuta, datorren urtean, kulturarteko
proiektu batean parte hartuko dutela jakinarazi du
zuzendariak: «Beharrak aldatzen ari dira. Guregana
beranduago etorri da, baina azkenean iritsi da. Behar
hori sentitu dugu, beraz, egoera honekin amaitzeko
Lizartzako Udalarekin batera proiektuari ekingo dio-
gu».

Herria bizirik

Eskola Txiki batek herri txiki batek dituen ezaugarriak biltzen dituela aipatu du Goyak. «Herri guztiek identitate propio bat daukate, eta identitate propio hori eskolan transmititu daiteke; izan ere, eskola identitate propio horren parte da. Herriko eskola den neurrian herriko identitate hori transmititzeko instituzioa da».

Adierazpenarekin ados daude Bengoetxea eta Lakunza, baita Joxean Arrue gurasoa ere. «Familia handi bat» bezala deskribatu du eskolaren eta herriaren arteko lotura. Arruek azaldu bezala, «eskolak herriari bizitasuna ematen dio, eskola herri erdian egoteaz gain, umeak herriko plazan egoten dira egun guztian zehar, joan-etorrian, eta herriko paisaiaren parte dira». Era berean, herriko aitona-amonek maiz esaten diotena ekarri du gogora Goyak: «Umeek oporrak hartzen dituztenean giro tristea geratzen da herrian. Tabernarik gabeko herria izango balitz bezala».

Eskolatik kanpo egiten dituzten

«Fokua
haurrengan jarri
eta haien
beharretara
egokitzen gara»

MARTA LAKUNZA

«Eskolak herriari
bizitasuna
ematen dio;[...] umeak herriko
paisaiaren
parte dira»

JOXEAN ARRUE

ekintzak gurasoei eta herri osoari zabaldua egoten direla jakinarazi du Bengoetxeak, «eta horrek jendea elkartzera animatzen du. Ez dira ekitaldiak egiten ditugunean soilik etortzen, eta horietan ere ez dira gurasoak bakarrik izaten, herriko jendea ere etortzen da. Herrira irekita dagoen eskola txiki bat da, eta bizia ematen diogu».

Gurasoak izaten dira herri txikietako eskolen behar azaldu eta eskakizunak bideratzeko lana hartzen dutenak. Horretarako, Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Koordinakundea baliatzen dute. 1993. urtean sortu zen hainbat helburuekin medio. Hamaika kidek osatuta ekin zion bideari, eta urtez urte beste hainbat herri eta auzoetako guraso elkarte batzen joan dira, gaur egungo Gipuzkoako 27 Eskola Txikiak osatu arte.

Gurasoen partaidetza ezinbestekoa da eskolako proiektuak aurrera egin dezan, eta bide batez, baita herrian dinamika interesgarriak bideratzeko garaian ere: eskola orduz kanpoko jarduerak antolatuz, gura-

te beste hainbat herri eta auzoetako guraso elkarte batzen joan dira, gaur egungo Gipuzkoako 27 Eskola Txikiak osatu arte.

Gurasoen partaidetza ezinbestekoa da eskolako proiektuak aurrera egin dezan, eta bide batez, baita herrian dinamika interesgarriak bideratzeko garaian ere: eskola orduz kanpoko jarduerak antolatuz, gura-



so-eskolak bideratuz, udalarekin zein herriko beste hainbat eragilerekin harremana sendotuz edota hezkuntza-proiektuan parte hartuz.


Horrekin lotuta, Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkarteen Koordinakundeak gurasoei zuzendutako jardunaldiak antolatzen ditu urtero. Gurasoen formakuntzaren aldeko apustua eginez, 2010. urteaz geroztik antolatzen dira jardunaldiok, hezkuntzarekin lotutako gaiak jorratuz. Formakuntza pertsonalerako eskaintzen dituzten aukerez gain, herri eta auzo ezberdinetako gurasoek elkar ezagutzeko topagune gisa baliatzen dituzte jardunaldiak.

Horrez gain, ez dute laguntza gurasoen aldetik izaten soilik, Lizartzako Udala edo herriko beste eragileen aldetik ere jasotzen du Lizartzako Herri Eskola Txikiak. «Hau da ikas komunitatea; proiektuak elkarlanean egitea, bai gurasoekin, baita udalarekin elkarlanean ere», esan du Gotzone Bengoetxea zuzendariak.

Halaber, gertutasun horrek «formalismo asko» kentzen duela gehitu du Arruek: «Udaleko norbaitekin harremanetan jarri behar dugunean, zuzenean bere zenbaki pertsonalera deitzen diogu, eta ez dugu zertan udaleko harrera zenbakira deitu behar. Egoera hori eskolan ere ematen da».



Enara Olazabal eta Maitane
Lopetegi gurasoei
egindako elkarriketa
Ataria.eus-en





ESKOLA TXIKIEN FESTA

Mila bederatziehun eta laurogeita zortzigarren urtean *Eskola txikiak bizirik* lelopean ospatu zen lehenengo festa Bidania-Goiatzen. Geroztik, urtero, ekaineko bigarren igandean, Gipuzkoako herri txiki edo auzo batean elkartu eta festa giroan murgilduta, herriak eta eskolak elkarren beharra dutela gogoratzen dute. Eskola txikien garrantzia aldarrikatzea, eta herri zein auzoetako bizitzan duten eragina azpimarratzea da festa egunaren helburuetako bat; baita eskola txikietako kideak biltzea, eta elkarrekin jai egunaz gozatzea ere.

1997an Lizartzan ospatu zen lehen aldiz Eskola Txikiaren Festa, eta bertan izan zen Gotzone Bengoetxea. Bero handia egiten zuela gogora ekarri du, eta aurten ere halako giro ona izatea espero dute guztiek; izan ere, bigarren hitzorduari eutsiko diote igandean.

Urte guztiko lana izan dela aipatu du Joxean Arruek: «Ikasturte hasieran hasi ginen. Batzuk lan gehiago izan zuten hasieran, eta beste batzuei lana beranduago iritsi zaigu, baina ginga jartzeko prest gaude. Gogo handia dugu, eta, urduritasuna nabaritzen hasia da».

Gauzak honela, igandean ospatuko dute Eskola Txikien Festa bigarrenengo urtez, Lizartzan. Honela, herriko zazpi guneeetan zehar zabalduko dute festa: lehena eskolan izango da; bigarrena, plazan; hirugarrena, udaletxean; laugarrena, Plazasoron; bosgarrena, frontoian; seigarrena, Zimitorioan; eta, azkena, Irabarreneko zelaian.



Eskola Txikien Festa iragartzeko prentsaurrekoa egin zuten eskolan bertan. **L.C.**

10:00etan hasiko da festa plazan, harrera ekitaldiak emango diolarik festari hasiera. Lizartzara gerturazten direnek 11:00etatik 13:30etara ekintza ugariz gozatu ahal izango dute. Zirko tailerra izango da plazan, jolasak eta eskulanak Plazasoron, Jon Jokai jolasak Zimitorioan, eta puzgarriak Irabarreneko zelaian. Bazkalaurretik Isk&Bila txaranga izango da herrian zehar.

Bazkaria 14:00etan izango da frontoian, eta, horren ostean, bingo musikatua egingo dute. Arratsaldean, festak ez du etenik izango, eta 15:30etatik 17:00etara Zimitorioan patinajea, eta plazan eskalada eta slack line ekintzak egingo dituzte. 15:00etatik 17:30etara, berriz, Irabarren zelaian puzgarriak, Zimitorioan Jon Jokai jolasak, eta Plazasoron aurpegia margotzeko eta trentzak egiteko aukera izango da, baita photocalleen argazkiak ateratzeko ere. Amaitzeko, 18:00etatik 19:30ak arte Otsoku eta Pituxa pailazoekin disko festa egingo dute plazan.

Bestalde, *Uraren bidea* izeneko ibilbidea ere antolatu dute herrian zehar, herriko txoko ezberdinak eza-gutarazi asmoz. Herrian zehar margotu dituzten ur

seinaleak jarraitu beharko dira horretarako, eta QR kode bat erabiliz, ibilbideko puntu ezberdinetan dauden erronkak gainditzeko jolas interaktiboak egiteko aukera izango da. *Uraren bidea* egin nahi dutenek astia izango dute horretarako, egun guztian zehar bidea egiteko aukera izango baita.

Lizartzara bertaratzeko, garraio publikoa erabiltzea gomendatu dute antolatzaileek. Horretarako, Irunzubi industriaguneko pabiloietan utzi ahalko dira kotxeak eta joan-etorriko autobusak jarriko dituzte maiztasun handiz 09:00etatik 20:30ak arte.

Bengoetxeak esker hitzak izan ditu festa antolatze-lagundu duten guztientzat: «Festa hau antolatzeak ilusio eta ardurak ekarri dizkigu, baina era berean, komunitate hitzaren esanahi osoaz gozatzeko aukera ere bai. Festa antolatzea ez da nolanahiko erronka eta herritar guztien inplikazioa ezinbestekoa dela ikusi da. Horregatik, guraso, ikasle, irakasle, udala, senide eta herritarren laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke hau guztia aurrera eramatea. Hemendik gure eskerrik beroena».

Lacunza

INGELESA ETA FRANTSESA

MATRIKULA IREKIA!

www.lacunza.es | 943 46 47 00

UDAKO IKASTAROAK

Goizeko Udalekuak

Lacunza Adventures: 3-12 urte.

Lacunza Summer Camp

Nazioarteko kanpamendua: 6-17 urte.

Ikastaro Trinkoak

First | Advanced | Proficiency
Maila eta adin guztiak.

📍 Lopez Mendizabal, 1, Tolosa | 📍 Donostia: Amara, Benta Berri, Gros, Centro | Irun, Zarautz, Errenteria, Beasain, Tolosa.



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM



Zuriz



MADDI AMIANO
ALLUE
IRAKASLEA

Azkenean iritsi da eguna. Ile bildua atseginagoa iruditzen zait eta hasieratik nekien hori horrela eramango nuela. Gainera, banan-banan fintasun osoz loreak ezartzen ari zatzaizkit, lau esku baditut buruan. Ongi geratzen da oso lore zurien kolo-

rea ile horiarekin tartekatuta, eta nolabaiteko argitasuna ematen dio nire aurpegiari ezkontzeko aukeratu nuen soinekoak nire siluetari ematen dion moduan. Soinekoaren aukeraketan orrazkeran baino denbora gehixeago igaro nuen, berezia zen zerbait nahi nuen nahitaez, eta nahikotxo kosta zitzaidan tela horien artean eroso egoten.

berezi batean protagonista izatea ere, ze arraiio! Hau guztia neure buruari «urrezkoak urruti xamar daude eta», esaten nion bitartean.

Ile apaindegira nire izebaren sarrerarekin batera, aldizkarian iragarki moduan ageri zen orri batekin egin dut topo. «*iNo quiero! Contra el matrimonio infantil temprano y forzado*», zioen hamar urte inguruko neskatxa baten aurpegiak. Nork daki bere istorioa edo beste ehunka haurrena ordezkatzeko ote duen, baina, bere begirada zurbilak bat-batean barrenak mugitu dizkidala ziurtatzen dizut. Izebari kasu egitea ere ahaztu egin zait eta. Gogoan dut 18 urtez azpiko ezkontza giza eskubideen bortxaketa bat baino ez dela, eta baita hainbat legek debekatzen badute ere, mundu mailan oso zabalduta dagoen praktika dela, eta adin horretatik behera haurdun geratzen diren emakumeak, etxean biolentzia jasateko aukerak are-

«Gogoan dut 18 urtez azpiko ezkontza giza eskubideen bortxaketa bat baino ez dela, eta baita hainbat legek debekatzen badute ere, mundu mailan oso zabalduta dagoen praktika dela»

Atzera begiratu, eta ezkon eguneko goizeko zortziak eta ile apaindegian nagoela pentsatzeak zirrara puntu bat sorrazten dit. Urrun bezain gertu ikusten ditut ezkontzeko erabaki genuen data, gonbidatuen zerrenda, eta ezkontzeko lekua. Eta pixkanaka joan gara aurrekontua ixten: argazkilaria, janaria, musika-riak, bodarako apaingarriak eta abar luze baten lista amaigabea taxutuaz. Kontatzen nion gertuko sen-titzen dudana ile apaintzaileari nire urduritasunak atzean uzteko asmoz.

Momentu horretan, orrazkera ezberdinez beteriko orri sortadun aldizkari bat gerturatu dit, eta bat-batean zilarrezko ezteietan eramango nukeen orrazke-ra estilorik bazegoela iruditu zait. Gustuko baitut neure burua eder ikustea, eta baita horrelako egun

agotzen zaizkiela eta, eskolara joaten jarraitzeko aukerak murrizten zaizkiela...

Eta derrigortutako ezkontza hauen txanponaren beste aurpegian, aukeratu ez duzun herrialde batean jaio, eta sexu bereko pertsona batekin ezkondu nahi eta ezinagatik presondegian amaitzeko aukera dute-nena. Orain urtebete arte mexikarrena, eta oraindik ere erabateko berdintasunerako izugarri falta dene-na. Askorena. Gehiegirena.

Aldizkaria itxi, eta buruko loreak galtzeko, edota tela zuri artean deseroso egoteko beldurra erabat des-agertu zait. Ainhoa nire lagun-minaren *um blem ble*, irrintzi eta algara artean tarteka aldizkariko begi orle-giez oroituko naizela zin degizut. Berea, edota berea bezalakoen bidegabekeriak amaitu daitezen eskatuz.



1.990€* -tik hasita

egokitu zure sukaldeak
zure bizitzara

Adinekoentzat **segurtasuna** eta **irigarritasuna** ematen dituen soluzioa.

*Basic-pack eguneraketa. Informazio gehiago: www.solumobel.com



altzari egokitu soluzio integralak



Tolosaldea Sahararekin elkarteak itzultzailea behar du

Eskatzen da:

- Sahararra izatea
- Oporrak Bakean ezagutzea
- Hassania jakitea
- Tolosaldean bizitzea

Interesak duenak curriculuma bidali dezala

tolosaldeasahararekin@gmail.com e-mailera ekainaren 18a baino lehen

BERRIA TALDEAK INFORMATIKA TEKNIKARIA BEHAR DU:

BERRIAk informatikarien lantaldean arituko den informatika teknikaria behar du, honako lan hauek egiteko:

- Ordenagailuak mantentzea eta konpontzea.
- Softwareak instalatzea eta konfiguratzea.
- Ordenagailuetan eta sareetan hardware arazoak atzematea eta konpontzea.
- Sareetako konexio intzidentziak kudeatzea.
- Erabiltzaileei arreta teknikoa eskaintzea.
- Ordenagailu berriak prestatzea.

Eskaintzen da:

- Urtebeterako lan kontratua, eta iraunkor egiteko aukera.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainen.

Eskatzen da:

- Sareko informatika sistemen administrazioko goi mailako ikasketak.
- Ingeles teknikoa.
- Euskara maila ona (gutxienez EGA edo baliokidea den euskara maila).
- Gidabaimena.
- Komunikaziorako eta traturako erraztasuna.
- Kontuan hartuko da MacOS sistema eragilearekin eskarmentua izatea.
- Kontuan hartuko da halako lanetan esperientzia izatea.

Interesa duenak bidali curriculuma, **ekainaren 13a baino lehen, 'IT-23'** erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: **gizabaliabideak@berriataldea.eus**

AGENDA

OSTIRALA

EKAINAK 9

ALEGIA

DANTZA EMANALDIA

22:00. Sutarri dantza taldearen emanaldia, Elorri pilotalekuan.

AMASA-VILLABONA

KONTZERTUA

22:00. Joseba Tapia. Aljibean.

**Irakurri 26-29 orrietan.*

AMEZKETA

IREKIERA

12:00. San Martingo Etxola zabalik.

19:00. Inaugurazio ekitaldia.

Mokadutxoak jateko aukera.

ANOETA

JAIK

11:00. Ume jolasak, Kulkirekin.

11:00. Herriko jubilatuen arteko toka txapelketa.

13:00. Buruhandi eta erraldoiak Loatzoko trikitilariekin.

19:00. Play-back-a.

23:30. Kai Nakai eta Liher.

JAIK. TXOZNA BATZORDEA

19:00. Kaxaren jolasa.

01:00. DJ Naza.

BERROBI

EMANALDIA

15:30. Eskolako irakasle eta ikasleen emanaldia.

IBARRA

GAZTE FESTAK

17:31. Txupinazoa.

18:02. Kirol ikuskizuna, plazan. Beasaingo harri jasotzaileak eta Ibarako sokatira taldea.

18:59. Sagardo dastaketa.

21:01. Bertso afaria.

00:06. Kontzertuak. Laket, Mutiko eta Denso productions, plazan.

Eta, Manitu eta DJ Eo, gaztetxean.

01:02. Ekitaldia, plazan.

LARRAUL

KIROL ASTEA

17:30. Boleibola, frontoian. Aiztondoko NKT.

TOLOSA

GAZTEBURUA

18:00. Solasaldia. Gazte mugimenduaren bilakaera Tolosan.

19:00. Bertso saioa. Gorka Pagonabarraga, Aroa Arrizubieta, Maddi Sarasua, Urko Arregi eta Igauri Lopetegi.

20:30. Pintxo afaria.

22:00. DJ Mahaia.

ERRENDIMENDUKO GIPIZKOAKO

TXAPELKETA

20:00. Alebinak: Abantzu-Ayesa eta Oiarpe-Galardi. Infantilak: Alde Zaharra-Sorondo eta Lapke-Arratibel. Beotibar pilotalekuan.

KONTZERTUA

20:15. Arimaz Kamera Orkestra. Ane Arteche harpa bakarlaria. Sara Liton zuzendaria. Santa Klara elizan.

ZIZURKIL

EMANALDIA

18:00. Zizurkilgo antzerki taldearen emanaldia.

Atxulondon.

TAILERRA

18:00. Oinarritzko lehen sorospena. *Herritarron jakintza. Eskuetatik eskuetara, etxeetatik plazara!* ekimenaren barruan. Herribizigune topagunean.

LARUNBATA

EKAINAK 10

ALEGIA

URTEKO BATZARRA

11:30. Erretirodunen elkartearen urteko batzarra.

ALTZO

BERTSO SAIO LITERARIOA

19:00. Bertso saio literarioa. Miren Amuriza, Uxue Alberdi. Mari Luz Estebanen *Andrezaharraren manifestua*. Batzarremuñon.

AMEZKETA

GAZTE EUNE

12:00. Triki poteoa.

14:30. Bazkaria plazan.

17:00. Trikitiens erromeria, plazan.

19:00. Herritik zehar, DJ J&J.

23:30. Bambola DJ saioa, plazan.

ANOETA

JAIK

GAZTEEN EGUNA

09:30. Esku pilota herri txapelketa, haurrak, finalak.

13:00. Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

16:00. Herriko mus txapelketa.

18:00. Gazteen kalejira.

19:00. Sagardo dastatzea.

21:00. Herri afaria.

23:00. Gazteen dantza plazan.

23:30. Zezen suzkoa, plazan.

Ondoren. Afu musika taldea.

JAIK. TXOZNA BATZORDEA

18:00. Gazteen kalejira.

23:30. Gazteen dantza.

01:00. Pinpilinpussits.

BERASTEGI

IRTEERA

09:00. Gaztainondok antolatutako irteera, autobus geltokitik. Ondarru eta Lekeitio ezagutuz egun guztiko irteera.

BERROBI

JOLASA

17:00-19:00. Ginkana jolasa, 6-16 urte bitartekoentzat.

IBARRA

GAZTE FESTAK

10:31. 4x4 futbol txapelketa. San Inazioko futbol zelaian.

17:04. Dantza emanaldia, plazan.
Alurr dantza taldearen eskutik.
17:57. Tortilla eta txokolatea. Sendi
ekintza elkartearen eskutik.
21:03. Barrikotea, plazan.
22:58. Kontzertuak. Coast Rebels,
Istilu, Muxutruk erromeria, plazan.
Eta, DJ Mondongo, gaztetxean.

IRURA

TXAPELKETA

15:30. IV. Ametsa Pilota Xare
Txapelketaren Finalerdiak. Xare
eskolako ikasleen arteko
txapelketa. Trinketea.

LARRAUL

KIROL ASTEA

11:00. Bizikleta ginkana. Herri
gazte eta gurasoek antolatuta.
Plazan.

TOLOSA

MENDEURRENA

09:00. Urtzi Gurrutxagaren
Oroimenezko alebin mutilen
futbol txapelketa, Berazubín.

GAZTE TOPAGUNEA

Futbol txapelketa.

TXAPELKETA

TAKEk antolatuta, 3x3 txapelketa.

09:00-13:30. Alebinak eta
infantilak, Alondegia plazan.

15:30-21:00. Kuadrillak, San
Frantzisko pasealekuan.

AZOKA SOLIDARIOA

09:00-14:30. *Jarri beste bat*
produktu freskoen azoka
solidarioa, Zutani elkartearen
eskutik. Bestelako ekintzak ere
izango dira, *Pobreziaren haur eta*
gazteen begiradak (marrazkien
eta esaldien erakusketa), kaleko
animazioa, haurrentzat elikadura
osasuntsuaren tailerra, pintxo
solidarioen eskaintza edota
errezeten txokoa. Trianguloa
plazan.

GAZTEBURUA

11:30. Street boulder eta futbito
txapelketa.

14:00. Bazkaria.



16:00. Bazkalosteko jolasak.

21:00. Ekitaldi nagusia.

21:30. No te crew-ren kontzertua.

KONTZERTUA

10:30. Tolosako Udal Musika
Bandak kontzertua eskainiko du
Uzturre egoitzan, Udal Txistulari
Bandarekin batera.

DANTZA EMANALDIA

Atzo, gaur eta bihar dantza
tailerreko emanaldia, Leidorren.

12:00. Txikien balleta (4-9 urte).

18:00. Helduen balleta eta dantza
garaikidea.

SORMENETIK

12:00. Galtzaundik antolatuta,
Sormenetik saioa. Mirua eta Verde
Prato musikariak izango dira
hitzorduko protagonistak.
Horretarako Eneritz
Furyak musikari irundarra egongo
da ohol-tza gainean Mirua eta
Verde Pratorekin batera, eta
beraien sormen prozesuaren,
musika egiteko estiloaren
hautuaren eta beste zenbait
gairen inguruko galderak
bideratuko ditu. Elkarrizketan
gain, protagonisten musikaz ere
gozatu ahal izango da
Sormenetiken. Zerkausiaren
azpian.

ANIZTASUNAREN GALA

18:30. Sarrerek 5 euroko kostua
izango dute. Musika- eta dantza-

emanaldiek erakutsiko dute
arteak ez duela mugarik. Telmo
Irureta, Iñaki Salvador, Jakes
Txapartegi, Esther Barandiaran,
Simon Ezquiaga, Ezezagunok
Antzerki taldea, Ibarrako
Garagune antzerki tailerra eta
Uikan Dantza Taldeko kideak
gonbidatu dituzte aniztasunaren
ekitaldira. Emma Larretak
aurkeztuko du ekitaldia. Topic-en.

IGANDEA

EKAINAK 11

ALEGIA

ZAHAGIARDOA

Korpus eguneko zahagiardoa,
plazan.

ALKIZA

NATURAREN DOINUAK

11:30. Festaren hasiera eta
gastronomia postuen irekiera:
Ekotalo eta garagardo artisauak.
Arratsaldean. Goyako
hanburgesak ere izango dira.

12:00. Jeronimo dultzaina taldea.

17:30. Naturaren doinuak
emanaldia. Musika: Aitor
Furundarena, TAG, Iñaki
Letamendia, Xabier Valverde,
Oihana Fernandez de Larrinoa,
Laida Dominguez... Dantzariak:

Noa ekitaldiak (Olatz eta Nahikari). Literatura: Xabier Artola eta Maxux Aranzabe. Izan Inurri elkarteak.

Jarraian. Laskotxaranga.
20:00. Festaren amaiera.

ANOETA

JAIK

10:30-12:30. Haur jolasak plazan, Oinherri herri hezitzaile taldearen eskutik.

12:00. XXX. Pala txapelketako finalak.

12:30. Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

15:30. Txirrindulari lasterketa, Mikel Oiarzabal eta Andoni Urkolaren omenez.

18:30. Kale Antzerkia. *Chef Nature* ikuskizuna Markeliñe konpainiaren eskutik, plazan.

Ondoren. Bada Giro musika taldea.

21:00. Kukuaren igoera kanpandorrera.

Ondoren. Bada Giro 22:30ak arte.

ASTEASU

BASAGAINERA IRTEERA

FAMILIAN

09:30. Asteasuko plazatik, oinez.

10:15. Sarasola sagardotegitik, kotxez.

BIDANIA-GOIAITZ

HELDUEN EGUNA

11:15. Bidaniko Bartolo Deunaren Parrokian meza nagusia.

Amaitzean. Herriko dantzarien saioa.

14:00. Bidaniko Ostatuan bazkaria.

IBARRA

GAZTE FESTAK

08:01. Gosaria, plazan.

17:59. Iago Mago, plazan.

Iluntzean. Gaztetxean afaltzeko aukera egongo da eta ondoren Dja.

LIZARTZA

ESKOLA TXIKIEN FESTA

09:00-20:30. Eskulanak, bingo musikala, zirku tailerra... Hainbat gune egongo dira herrian zehar.

***Irakurri 10-17 orrietan.**

EKITALDIA

12:00. Joxe Migel Etxeberria. 43 urte egiaren bila. Egiari Zor elkarteak antolatutako ekitaldia. Igarolabekoa baserrian.

TOLOSA

T3T ETA T2T

08:45. VIII. T3T Mendi Maratoia eta T2T. Erroizpe, Uzturre eta Hernio igoko dituzte mendi korrikalariek. Trianguloa plazatik abiatuta.

IURREAMENDI EGOITZAKO FESTAK

13:00. Bazkari berezia.

PENTATLOIA

18:00. IV. Binakako Euskal Pentatloia, zezen plazan. Andoni Iruretagoiena, Xabat Olaizola, Xabier Zaldia, Aratz Mugertza, Ioritz Gisasola, Jon Gisasola, Julen Gabirondo, Beñat Telleria, Aritz Irazabal, Benat Amade, Julen Kañamares eta Jagoba Otaegi. Nerea Arruti, Amalur Arbelaitz, Lucia Orbe, Julia Martinez, Oihana Barrena eta Lur Errekondo.

KONTZERTUA

18:00. Hiri galduak taldearen kontzertua. 3 tabernan.

ASTELEHENA

EKAINAK 12

TOLOSA

IURREAMENDI EGOITZAKO FESTAK

10:30. Txupinazoa.

11:00. Oroitzapenerako kantak.


16:00. Jolasak sari banaketarekin.

FURGOBARATZA

18:00-19:30. Furgobaratza.

Gaixotasun eta izurriak. Baratzean dauden arazoei nola aurre egin eta horretarako zein produktu erabili daitezkeen ikasiko dute. Baratze parkean.

ZINEMA



GUARDIANES DE LA GALAXIA: VOLUMEN 3

Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.



LA HIJA ETERNA

Igandea (20:15) eta
astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



COMO DIOS MANDA

Larunbata (19:30 eta 22:00);
igandea eta astelehena (19:30).
Amasa-Villabona, Gurea.



Margotu

Eman kolorea lagun talde honi. Izar batzuk ere marraztu itzazu, gaua da eta.



Itzala

Zortzi itzal hauen artetik zein ote da zuzena?



GAIZVLUNPTOKIWUP IRAWUPBAZIAWUP,
VLUNPIRAWUPTXOMUJEKWUPVLUNP
VLUNPIRAWUPGAMUJZIAWUP



Zeer?!

Ezaba itzazu VLUNP,
WUP eta MUJ
guztiak eta iratxoan
gaineko esaera bat
agertuko zaizu.

DOMINOAN





Sudokua

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarriz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

ALdea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak, 10 dira guztira.



Egilea: Garbiñe Ubeda



ENGainagarriak

10 puska hauetatik 5 irudi nagusitik hartuta daude eta besteak ez. Bereiz itzazu.



Denbora-pasen erantzunak hemen.



«OFIZIOAREN BARRUAN BERTSOA IZAN DA GILTZARRIA ETA LANTRESNETAKO BAT»

JOSEBA TAPIA
MUSIKARIA

Harituz Bertsozale Elkarguneak 10 urte betetzen ditu, eta kontzertu berezia antolatu du gaurko, Villabonako Aljibean; Joseba Tapiak duela 10 urte argitaratu zuen 'Tximela kapitainaren izarrak' diskoa eta bi data borobilek bat egingo dute. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrera librekoa izango du.

Imanol Artola 'felix' Amasa-Villabona

Joseba Tapiak (Lasarte-Oria, 1964) *Tximela kapitainaren izarrak* emanaldia eskainiko du gaur Quico Pugès biolontxelo jotzailearekin batera. Haritz Azurmendi ikertzaileak egingo dio sarrera saioari. (H)ari naizela ATARIA IRRATIKO podcastean elkarrizketatu du Imanol Artola *felix*ek Joseba Tapiak musikaria.

Batez ere, Leturiaren konpainian ezagutu zaitugu, baina izan dituzu beste hainbat bidelagun eta proiektu ere; Amuriza, Ruper Ordorika, Bixente Martinez, Hiru Truku eta Zaldibobo esaterako. Zure letrei begiratuta, trikitixari bezalaxe, zure bizitza bertsoari lotuta egon dela esan daiteke?

Lehen diskoan dena ni egiten saiatu nintzen. Leturiak eta biok pentsatu genuen edozertarako ere balio genuela, eta orduantxe konturatu ginen letrekin laguntza beharko genuela. Bertsolariekin tratu handia neukan, txikitatik izan naiz bertsozale eta mundu horretatik oso gertu ibili naiz beti, eta bertsolariengana jo genuen.

Zein da gaur egunetik atzera begiratzen hasi, eta daukazu lehen bertso oroitzapena?

Oso umetatik familiatik datorkit zaletasuna. Aita oso bertsozalea izan da, bederatzi puntuko batzuk buruz ikasgarazi zizkidan, ez oso zorrotz. Aitaren anaia bertsozalea zen eta amaren aldetik ere bertsoak bakarrik ez, kantagintza ere jaso dut. Oso umetatik ditut oroitzapenak, gogoan dut Usurbilgo plazan Mattin eta Xalbador ikusi izana, baita Orexan eta herri txikitako saioetan ere. Amaren jaiotetxea Lazkaomendin dago, eta festetan beti Lazkao Txiki... horiek izango dira nire lehen oroitzapenak.

Aritua al zara bertso eskolan?

Baita ere. Beranduago BUP-en txapelketa baterako prestatzen hasi ginen, Juan Gartzia genuen maisu. Ikasleen artean hasi ginen bertsoak idazten eta bidaltzen. Musa bat asmatu genuen, gelako neska bat, eta *Azukre Koxkor* deitzen genion, haren lehian bertsoak idazten hasi ginen. Lehia horretan irakasleak ere sar-



tu ziren eta ondoren lehen bertso eskola sortu genuen, eta gazteen lehen txapelketa horietan sartu ginen. Santo Tomas Lizeoan izan zen hori. Ofizioaren barruan bertsoa izan da giltzarria eta nire lantresnetako bat.

Tapiaren kantu guztiak kontuan hartuta, ez dira asko bertso moldetik aparteko letrak dituzten kantak; metrika berdintsukoak eta errimatzen dutenak dira gehienak.

Zalantzarik gabe. Tapia eta Leturiarekin bereiziki, oso neurtutako formetan ibili naiz, koplak batetik eta bertsoak bestetik. Neurri arraroetan aritzea edo hortik aparteko ahaleginak egitea bakarkako ibilbidea abiatutakoan hasi ziren.

Biharko kontzertuak Tximelaren bertsoetan oinarrituz osatutako 'Tximela kapitainaren izarrak' diskoa izango du oinarri. Tolosan jaio zen Tximela eta bertso sorta asko idatzi zituen. 1989an Hauspoan liburu bikoitza argitaratu zen eta liburu bikoitz horretako pasarte batzuk kontuan hartuta 2013an argitaratu zenuen 17 kantuz osatutako diskoa. Josebarentzat zein da Tximela, nola definituko zenuke?

Ez nuen ezagutu, nahiz eta ezagutzeko tartea izan nuen, 1993an hil baitzen. Gainera Leturiaren kuadrillako baten aita zen. Leturiari ez nion aipatu, eta hark ez zekien zertan nenbilen. Diskoaren nahasketan nengoela, Huescan (Aragoi) geundela ikastaro batean, diskoa ezagutzen zuela esan zidan. Tximela ezagutu dut bi liburu horiei esker, eta gerora ikasi nuen haren historia. Horiek irakurrita dakit zein trantze pasa behar izan zituen. Tximelak 20 urte zituen altxamenduan, kartzelako lehen sorta idazterakoan 23 urte zituen eta, gainera, kapitan izendatu zuten. Egoera gogor bat bizitu behar izan zuen; kontatzen du amak Bartzelonara joan behar izan zuela, anaia hila zuela, bestea Baionako ospitalean zaurituta zegoela... oilo ipurdia jartzen da pasa behar izan zituztenak irakurtzean. Belaunaldi horri galtzea tokatu zitzaion, zapalduak izan ziren, eta Franco Donostiara etortzen zen guztietan atxilotu egiten zituzten. Guzti hori pare-parean lotzen dut, gure maisu edo nagusia izan den Elgetarekin. Elgetak 30 urte zituen gerra iritsi zenean, eta errepublikazaleekin aritu zen boluntario. Kasualitatez [Tximela bezala] Dueson (Kantabria) egon zen Elgeta, handik Cadizera (Andaluzia) eramane zuten eta gero aske utzi zituzten. Elgeta Lastur inguruko baserrietan ezkutatu zen, nolabait esateko, eta Tximela hemen, Tolosa-Villabona inguruan, egon zen. Belaunaldi hori da Tximela niretzat.

Nola hasi zinen Tximela ezagutzen?

«Oso neurtutako formetan ibili naiz, koplak batetik eta bertsoak bestetik»

Aldaketa handi bat gertatu zen Tapia eta Leturian aritzetik, bakarka haste horretan. Bakarkako ibilbide guztia taldean egin dut, Koldo Izagirrek eta biok egin dugu. Elkar-berotze eta elkar-trukatze horien ondorioz sortu dira proiektuak. Ez ginen segituan

sartu Tximelaren proiektuan, hiruzpalau proiektu genituen, eta probatan hasi nintzen, ea tonua eta erregistroa harrapatzen nituen. Eta halako batean Tximelaren bertso horiei topatu nien zegokien estiloa eta soinu unibertsoa, eta ez hori bakarrik ia mundu horretan sartu ginen, eta oso argi ikusi nuen proiektua. Koldo eta bion artean egin genuen, Koldo gehiago liburuetan aritu zen eta ni musikan. Bion arteko kontu bat izan da.

Diskoan Tximelaren urtebeteko ibilbidea hartu zenuten oinarri, 1937ko abuztutik 1938ko abuztura, hau da, Duesoko bizipenak biltzen dituzten bertsoak aukeratu zenituzten. Argi zenuten horra mugatu nahi zenutela?

Bai. Joxe Mari Lopetegirekin ere pasa zitzaigun, estutasun horretan, kartzelaldian idatzitako horietan, gora egiten du, hunkigarria da benetan kontatzen duena, nola kontatzen duen, metrika puskatzen du, batzuetan poesia egiten du... Zati horrek hunkitu ginen, baina baita formengatik eta kontatzeko moduagatik ere. Harrigarria da nola erabiltzen zuen metrika, nola puskatzen zuen... Harrigarria da estutasun horrek noraino eraman zuen artistikoki, Tximelaren ohiko bertsokera puskatzeraino, eta maila handi bateraino, nire ustez.

Duesotik aterata, ondorengo kartzeletan ere antzeko segitzen al du?

Ez, ez dakit zenbat denbora eman zuen Cadizen, Puerto de Santamarian, hango berririk ez daukat, ez dut uste denbora asko emango zuenik bertan. Tximelaren kontakizun hau, oro har kartzeletan gertatzen zenaren kontakizun bat da. Nik esango nuke pobre-

«Tximelaren kontakizun honek edozein garairako balio dezake»

en lekuak direla kartzelak, baita euskaldunentzat direla kartzelak. Tximelaren kontakizun honek edozein garairako balio dezake.

Harrigarria da kartzelan idatzitakoak gorde eta gaur egunera iristea.

Bai. Bere semeak kontatu zigun zatika atera zituztela bertso horiek, eta ez zen erraza izango. Bildu egin beharko ziren gero, Antonio Zabala ibiliko zen horretan... Eta ez zen erraza izango idatzeta hura, ez zuten ezer izango, argirik ere ez, behar bada. Nahiko balentria iruditzen zait kartzelan idatzeko aukera izatea eta gordetzeko abilezia izatea.

‘Tximela kapitainaren izarrak’ diskoan gitarrekin entzuten zaitugu, arraroa egiten da Joseba gitarrekin entzutea eta ez trikitixarekin.

Bakarkakoetan gehiago ibili naiz testuaren janzkeraren bila, eta hor ez dut sentitu instrumentuarekiko zorrik, esan nahi dut, ez dut presiorik izan. Bestalde gitarra oso umetatik datorren instrumentua da guretzat, trikitixaren pare izan dut beti, filarmonika ere, baina batez ere, gitarra. Trikitixa gehiago baserri munduan zegoen garai hartan, konplexu askorekin; izan ere, garrantzitsua zena soinu kromatikoa zen, soinu handia. Nik gitarra eta kantagintza moderno hori izan dut inguruan, niretzat ez da arraroa.

Tximela alde batera utziz, Leturiarekin egindako disko gehienetan, bertsoak daude oinarrian, baina badaude zenbait disko bertso zaharren bilduma direnak. Hiru Trukuko ibilbidea-n izan zen hori?

Hiru Trukura iritsi nintzenerako Ruper (Ordorika) eta Bixente (Martinez) hasita zeuden bilketa horretan eta

argi zuten kantu zaharra nola tratatu behar zen, beste ikuspegi bat zuten. Ni txapelketetatik nentorren, birtuosismoan nengoen nolabait esateko, eta Hiru Truku baldekada bat ur hotz izan zen; hor ezin zen birtuosismorik erakutsi, alderantziz, kantua bera zen agertu behar genuena eta ahal zen gutxiena gure eragina.



Hiru Trukurekin hiru disko, eta tartean 'Bizkaiko koplak zaharrak' Amurizarekin eta Leturiarekin.

Hori ezustekoa izan zen. Guk trikitixa mundutik ez geneukan koplaren ezagutzarik, guretzat kopla edo bertsoa berdina zen. Laja eta hauek ere letra berriak behar zituztenean bertsolariengana jotzen zuten, eta bertsolariek hartzen zuten metrika osoa eta bertso bihurtzen zuten. Amurizari entzun nion lehen aldiz ez zela gauza bera.

Gerora badaude zenbait disko monografiko edo, politikarekin estuki lotuta daudenak, politikarekin edo gure iraganarekin, hasi 'Québec: hamalau kantu independentziarako'-tik eta 'Agur Intxorta maite', Tximelarena... horietan izan da Koldo bidelagun?

Bai, dudarik gabe. *Apoaren Edertasuna* diskoarekin hasi ginen, biak igotzen ginen oholtzara, bigarrena izan zen Quebec-ekoa. Han jaialdi batean jo behar genuela ETak su etena agindua zuen eta orduan hasi ginen pentsatzen zer gertatzen da Quebec-en?, Hor ere independentzia nahi dute, eta zer ote dago Quebec-en? Letu eta biok astebete eman genuen Montrealen, eta gu handik eta Koldo hemendik, mundu bat deskubritu genuen, idazle eta kantari koadro zoragarria, ez nituen ezagutzen: Leclerc, Charlebois, Leverque... Suelto samar nengoen batean, elkarrizketa batean esan nuen Brassens izan ordez irakasle, Leclerc izango zela Brassensen irakasle. Eta horren harira Imanol Larzabalek hartu ninduen eta haserrez esan zidan ezetz, ez zela horrela, eta ni isilik. Belau-

naldi guzti horrentzat kantari horiek guztiak oso garrantzitsuak izan dira, nik esango nuke Ruperretik hona hasi zela anglofonia, guk dena ingelesez entzun dugu, baina aurrekoek dena frantsesez entzun dute, Hego Amerikako kantariak.... Aldiz, gure belaunaldikoek ez ditugu ezagutu eta frankofonia gorrotatu dugu ere, boikota egin diogu frantsesari... Frantzia osoari egin diogu boikota, baita gauza ederrei ere. Montrealen geundela, testuak hartu eta zein politikak ziren konturatu ginen eta euskaraz kantatu behar genituela pentsatu genuen. Nire ezjakintasunetik Koldori esaten nion kantu horiek hartu eta doinua jarri behar geniela, eta Koldok esaten zidan kantu horiek bazutela doinua. Hor konturatu nintzen zein ezjakina nintzen frantses kantagintza moderno horretan. Ikasketa handia izan zen, eta hor saiatu nintzen hurbiltzen, eta deskubritu nuen mundu eder bat hor.

Zer eskainiko duzue gaurko emanaldian?

Diskoan Luis Fernandez aritu zen txeloarekin eta Quico Pugès ariko da oraingoan. Biak ariko gara eta diskoa kantatuko dugu. Kantuek izango dute euren azalpena, Haritz Azurmendik kokatuko ditu, eta nik zeozer esango dut, baina ez dut denbora gehiegi izango. Kantutegi nahiko luzea da. Kantu guztiak prestatu ditugu, baina ez zait iruditzen denak abestera iritsiko garenik.



(H)ari naizela
osorik
entzungai
Ataria.eus-en



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Antzeko gi-

roa. Goizean ostarre zabalak nagusituko dira eta giro eguzkitsua izango da. Arratsaldean aldiz, bero-hodeiak garatu eta arratsalde erditik aurrera ekaitzetara joko du, non balitekeen ekaitz handi xamarrek lehertzea. Goizean hego, hego-mendebaldeko haize bizia ibiliko da, arratsaldean aldiz ipar-mendebaldeko egingo du. Tenperaturan aldaketa gutxi; balioak zertxobait beherago kokatu daitezke, 27-28 graduan joko dutelarik goia egunaren erdiko orduetan.

LARUNBATA

Giro lasaiagoa. Egun osoan zehar hodeiak eta ostarreak tartekatuko zaizkigu, hodeiak orokorrean nagusi izango direlarik, bereziki egunaren bigarren partean, baina ekaitzetarako probabilitatea oso txikia denez, ateri eutsiko dio leku eta ordurik gehienetan. Haizeak goizean hegotik joko du, baina eguerditik aurrera iparraldera egingo du. Temperatura antzeko kokatuko da, 26-28 graduan joaz goia.

IGANDEA

Giro nahasiagoa. Goizean goizetik zeruan hodeiak nagusi izango dira; orokorrean nahiko ateri mantenduko da, nahiz eta, ez den baztertu behar mendi inguruetan tantaren bat botatzea. Eguerditik aurrera, giroa nahasituko da eta arratsaldean ekaitzen bat izango da. Ipar-ekialdeko haizea nagusituko da eta tenperaturak behera egingo du, 24-25 graduan joaz goia.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

17€

51€

56€

Atarikideek

13€

36€

42€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

EKAINAK 9, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24.
943 67 32 74.

EKAINAK 10, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Lurdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6-behea 1.
943 67 51 18.

EKAINAK 11, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Oskar Etxebeste Etxarri.
Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

EKAINAK 12, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:
TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.

atarikideen abantailak



Saberri

Kosmetika eta lurrineko lehen markak, automakillaje ikastaroak eta produktu aukera zabala.

Kabinako zerbitzu zabala eskaintzen dute: makillajea, manikura eta pedikura, betileetako lifting-a, eta bekainen laminazioa. Baita aurpegiko depilazioa ere.

Eta opari bat egin nahi izanez gero, emakume eta gizonezkoentzat osagarri aukera zabala izango duzu eskura.

Saberrin adeitasuna eta dedikazioa aurkituko dituzu.

**%15eko
deskontua**
kabinako zerbitzuetan
lehen bisitan



Lurrindegia, kosmetika
eta zerbitzu berriak kabinan



Nagusia, 17 • Tolosa.

943 67 11 28

saberri@saberri.com

Saberri.com

gozatu
zure abantailak



ataria.eus/kideak



2MÓ 229€

PROGRESIBO

BAT EGUZKITAKOA IZAN DAITEKE

B L O C K S

BILDUMA BERRIA

R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

San Frantzisko, 23

Tel.: 943 69 84 70

TOLOSA



eskatu hitzordua WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua